

IRAKURZALETASUNA

MARIASUN LANDA ETXEBESTE

*Osaba Nikolas Etxebesteri.
Pertsona eta irakurle handia.
Otsailan joan zitzaiguna.*

Irakurzaletasuna haurtzaroan erein behar den hazia dela eta eskolaren eskuetan gelditu omen da, neurri handi batean, betebehari hori gaur egun. Zama berri samarra zenbait irakaslerentzan, zeren gutako askorentzat irakurzaletasuna eskolatik kanpo deskubritu eta landutako "bizio" txikia izan baitzen. Garai hartan, eskolako liburuak zeuden alde batetik, eta bestetik, geure gustoko tebeo, liburuskak eta nobelak, askotan ezkutuan irakurriak, irrikaz trukatuak, ahoz-aho gomendatuak.

Egun, berriz, haurrek eskolak aginduta irakurtzen dituzte liburu horiek, komikiak begiratzea ez da jadanik denbora-galtze hutsa, Tom Sawyer ikasgelakide dute eta "Altxorraren uhartea" irakurgai.

Berez, ezin da ukatu aurrerapen handia izan dela haur literatura eskolan sartzeari, gauza berria, pedagogoa eta irakasle aurrerakoi askoren fruitua... Hala ere, hori ez omen da nahikoa, literatura eta haurren artean zubi gehiago eraiki behar direla eta, literaturgileak eskolaratzea ikusi da haurrengan irakurzaletasuna bultzatzeko bide egokienetako bat.

Idazleak eskoletan

Irakurlea eta idazlea lagun izan arren, askotan elkar ezagutzen ez duten bi mundu dira, eta irakurle hori haur edo gaztetxo denean distantzia hori are eta handiagoa izan ohi dela esan daiteke. Idazleok, eskola batera edo bestera joateko deituak izaten garenean, irakurle ezezagun horiekin topo egiteko aukera izaten dugu eta normalki, oso esperientzia aberatsa eta interesgarria gertatzen da, bai idazlearentzat bai irakurle gaztetxoarentzat.

Hasteko, haur irakurle gehienagoari ez zaio sekula burutik pasa irakurri duten ipuinak edo liburuak egile bat duenik, istorio hori norbaitek asmatu duenik eta, horrelakorik pentsatu badute ere, idazle hori hilik dagoela uste dute. Biziki harritzen dira, beraz, emakumezko edo gizonezko arrunt baten aurrean aurkitzen direnean...

Hasieran oso tente eta erne egoten dira idazle delako pertsona horren aurrean, eta hark agurtzeko hitz goxo batzuk esan arte ez dira erlajatzen, ez dira beren aukietatik gehiegi mogitzera ausartzen... Une horretan, kupidarik gabe aztertzen dute eskolara joan zaien pertsonai ezezagun horren aurpegia, bere jatzera, bere jarrera, ea "idazletasun" famatu hori xehetasun estafalario batean antzematen duten, ea zerbait berezia eta liluragarria duen... Eta besterik ezean, idazle horri bere obrari buruzko zenbait galderak egitera prestatzen dira.



Idazleak eskolaratzea irakurzaletasuna bultzatzeko bide egokia da.

Galde debalde

Ia beti, kuaderno bat dute lagun. Eta hantxe barruan, galdekizun batzuk idatzita, kostata idatziak, asko pentsatutako galderak baitira: "noiz hasi zinen ipuinak asmatzen?... Askok gustatzen al zaizu idaztea? Zein da idatzitako ipuinean artean gehien gustatzen zaizuna? Nola idazten da ipuin bat?..."

Galdera ebitezinak dira, ia aukera guztietan errepikatzen direnak, bankete baten aurrean hartzen diren aperitiboen antzera. Zeren, geroxeago, ditxosozko kuaderno horiek ahaztuta, beren galderak gero eta zehatzago, bihurriago, bilakatzen baitira: Zergatik izar hori berdea zen eta ez gorria? Non ikusi duzu nigar egiten duen perretxikorik? Eta zergatik Txan Fantasmak ez zuen Karmentxu Arraroetxetik askatu?...

Badaude haur irakurle horien artean, idazlearen kontu korrontez arduratzen direnak, "asko irabazten al duzu ipuinak asmatzen?", baita bihotzaren gorabeheretaz kezkatzen direnak ere: "nobiorik ba al duzu?"... Eta gutxien espero denean, galdera harrigarriren bat edo beste zuzenduko diote idazle gizarajoari, haurrak pentsatzen dugun baino zorrotzagoak baitira.

Gogoan dut halako solasaldi batean, eta saio bukatzeaz zegoela, izkina batean zegoan neskatila batek, ordurarte ezertxo esatera ausartu ez zenak, eskua altxatu eta galdetu zidala: "Baina, zu zer moduz zaude?"... Arnasarik gabe geratu nintzen. Hasieran, ezulertzearena egin, eta galdera errepikarazi nion neska lotsatiari. Egia esanda, emozio handia sentitu nuen nire baitan, itaun hura ez baitzen idazle-pertsonaiari zuzendua bere aurrean zegoen emakume gizagaisoari baizik.

Eta ondo nengoela, bai, ondo nengoela erantzun nion ziurtasun handirik gabe, neskatilaren begietan ispilu baten aurrean bezala neure burua ikusten nuen bitartean. Biluzik.